

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3271

AGINDUA, 2022ko uztailaren 6koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarena, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei laguntza ekonomikoak emateko oinarriak onartzen dituena bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioari buruzko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko, eta 2022rako deialdia izango duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Sailak sortu, kendu eta aldatzeari eta horien funtzioak eta ekintza-eremuak mugatzeari buruzkoak Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 13.1.m) artikulua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen dizkio, beste funtzio eta ekintza-eremu batzuen artean, familia babesteari eta lana eta familia kontziliatzeari dagozkionak.

Era berean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egiturari eta funtzioei buruzko urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak sail horren funtzioen artean ezartzen ditu alde batetik, politika publikoetan familia- eta erkidego-ikuspegiak bultzatzea, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko familiarako, haurtzarorako eta nerabezarorako politiken plangintza, koordinazio eta ebaluazio orokorra egitea.

Bestalde, Familiei Laguntzeari buruzko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen helburu nagusietarikoa da familia-eredu bat sendotzea, non autonomia, kide guztien arteko errespetua eta bikotekideen arteko berdintasuna ezin utzizko eskakizunak baitira, denek dituztelako errealizazio profesional eta pertsonalerako aukera berberak; finean, gure gizartearen balio demokratikoekin bat datorren eredu bat.

13/2008 Legearen helburu dira familiako eta laneko ardurak kontziliatzea, emakumea lan-merkatura sartzeko eta karrera profesionala garatzea; baita familia arloan gizonen eta emakumeen ardura partekatua sendotzea bultzatzea ere, batez ere haur adingabeen zainketan eta hezkuntzan eta mendekotasuna duten pertsonen eta muturreko osasun-egoeran dauden pertsonen arretan.

Ez da erraza xede horretara heltzea. Gaur egun, gizarte-eragile guztiak, enpresak, administrazio publikoak bereziki barneratzen ari dira kontziliazioa ez dela eremu pertsonalera eta familiarra mugatzen eta onartzen ari dira kontziliazioa ez sustatzeak gizartean eta ekonomian kostu handia eta ondorio kaltegarriak dituela, hala nola, gaixotasunak, estresa, eskola-porrota, haurren babesgabetasuna, errendimendu txikia eta absentismoa edo langileen txandakatze handia.

Gizartea geroz eta gehiago jabetzen da gurasoek familiei denbora gehiago eskaintzeak norbanakoaren, familiako eta laneko bizitzan oreka handiagoa dakarrela eta esparru guztietan prebentzio-eragina duela. Horrez gain, frogatuta dago motibazioarako eta produktibitatearako ere onuragarria dela, izan ere, talentua hobeto mantentzeaz gain eta langileen txandaketa txikiagoa sortzeaz gain, euren bizi-kalitatearekin kontentago dauden pertsonak ditu ondorio.

2018ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta EUDELek Familia eta haurtzaroren aldeko euskal ituna izenpetu zuten, eta hori planifikatzeko, zabaltzeko eta gauzatzeko erreminta nagusia da 2018-2022 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei laguntzeko erakundearteko IV. Plana. IV. Plan hori Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 19an onartu zuen, eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen 2018ko irailaren 13an. Bost ardatz nagusitan banatuta dago, eta 1. ardatza «Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardura partekatua erraztera» bideratutako helburuak lortzeari buruzkoa da.

Familiei laguntzeko erakundearteko IV. Planaren 2. ardatzaren helburu nagusi dira, alde batetik, gurasoek haien hurrei eskaini beharreko denbora guztia eskaintzea, familiako beharrak asetzeko denboraren gizarte-antolamendu egokiagoa bultzatuz, eta, bestetik, arduraren partekatua dituen gizarte-antolamendua sustatzea. Horretarako, hainbat neurri martxan jartzea mahaigaineratzen du, eta 21. neurria nabarmentzen da horien artean. Neurri horren xedea «Enpresetan bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko proiektu pilotuak eta planak gara daitezkeen bultzatzea» da, eta, hori lortzeko, enpresetako kontziliazio-planak finantzatzeko berariazko dirulaguntza-lerro bat ezartzea proposatzen du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak enpresetan Berdintasun Planak ezartzeko garatzen dituen dirulaguntza-lerroekin batera.

Aipatutako neurria garatzeko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Familia eta Haurren Zuzendaritzaren bidez, Kontzilia izeneko hainbat proiektu pilotu gauzatu ditu. Hauek dira Kontzilia proiektuaren helburuak: alde batetik, euskal enpresei bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliatzeko neurriak ezartzen laguntzea, eta, bestetik, zuzeneko informazioa eskuratzea kontziliazioa lortzeko euskal enpresen apustuan sortutako joerei, beharrei eta desfizioei buruz. Orain arte, sektore ekonomiko askotariko 30 enpresak baino gehiagok parte hartu dute.

Kontzilia proiektu pilotuez gain, agindu honetan lehenago aipatutako dirulaguntza-lerroa ezartzen da; Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2022rako Dirulaguntzen Plan estrategikoa-ren barnean dagoena, 2022ko urtarrilaren 18an onartutakoa, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluko xedapenak betetzen dituen. Dirulaguntza-lerro hori bat dator Familien eta Haurren Zuzendaritzak markatzen dituen lehentasunezko lerroekin. Bestalde, Plan Estrategikoa Eusko Jaur-laritzaren gardentasun-atarian eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko web-orrian argitaratuta dago.

Agindu honetan araututako laguntzak izapidetzeko nahikoa aurrekontu-kreditu dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legean (2021eko abenduaren 30eko EHAA, 261. zk.).

Dirulaguntzen agindu honek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren arau-esparrua betetzen du, zeinek EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina eta horren garapenerako araudia onartzen dituen. Horrez gain, lehen aipatutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arau-esparrua ere betetzen du aginduak.

Interesdun erakundeek laguntza-programa horretarako izapidetze guztia modu telematikoan egin beharko dute nahitaez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikuluan aurreikusitakoa betez.

Azaldutakoarekin bat etorritik,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

1.– Agindu honen helburua da erakundeek aholkularitza-erakundeen laguntza teknikoko zerbitzuak kontratatzeko 2022rako laguntza ekonomikoen deialdia egitea, eta horretarako oinarriak onartzea, jarraian aipatuko diren jarduketetarako: egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egitea, bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliaziorako.

2.– Dirulaguntza bideratuta dago erakundeei bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliaziorantz aurrerapausoak egiten laguntzera. Horretarako, diagnostiko baten eta ekintza-plan baten bidez kontziliazioaren kulturen barneratzeko baliabideak eskaintzen zaizkie.

3.– Ez da aurreikusten diren neurrien ezarpena edo kudeaketa finantzatzeko, ezta EAetik kanpo dauden establezimenduen inguruko diagnostikoak edo ekintza-planak egitea ere.

2. artikulua.– Hautaketa eta diru-kopurua.

1.– Deialdi hau norgehiagoka-prozeduraren bidez ebatziko da.

2.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen deialdirako diruak jatorria Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan zehaztutako kasuan-kasuko aurrekontu-kredituetan izango du.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako dirulaguntzak finantzatzeko, hirurehun eta laurogeita hamabi mila zortziehun eta berrogeita hamazazpi euro eta hamabost zentimoko (392.857,15 euro) kreditua aurreikusi da. Horietatik 275.000 euro 2022rako ordainketa-kredituari dagozkio eta 117.857,15 euro 2023. urterako konpromiso-kredituari. Zenbatekoetarako, kontuan hartu da Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak (2021eko abenduaren 30eko EHAA, 261. zk.) onartzeko baliatzen den abenduaren 23ko 11/2021 Legea.

3. artikulua.– Dirulaguntza-jarduketak.

1.– Diruz lagunduko da bi jarduketa hauek, 2022ko urtarrilaren 1aren eta 2023ko apirilaren 30aren artean, burutzen laguntzeko aholkularitza-erakundeen kontratazioa:

a) Erakundeak EAEn dituen establezimenduen egoeraren Diagnostikoa, bizitza pertsonala, lana eta familia kontziliatzeko neurriei buruzkoa.

b) Bizitza pertsonala, lana eta familia kontziliatzeari buruzko ekintza-plana.

2.– Aurreko bi jarduketako bat bakarrik egitea ez da diruz lagunduko.

3.– Diagnostikoak, gutxienez, bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioari buruzko bost analisi-esparru hauek izan beharko ditu:

– Erakundearen barne-politikan kontziliazioak duen garrantzia.

– Erakundeak aitortzen eta eskaintzen dituen kontziliazio-neurriak: langileek zein mailatan eza gutzen eta erabiltzen dituzten, neurriak langileen beharretara zein puntutaraino egokitzen diren, aukeren analisia lanpostuaren arabera.

– Langileen bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa hobetzeko beste laguntza-baliabiderik dagoen/eskaintzen den.

– Langileei dauden kontziliazio-neurriak eta horiek eskatzeko moduak jakinarazteko prozedurak izatea. Zein mailatan eza gutzen eta erabiltzen diren.

– Erakundearen kontziliazio-neurriak ebaluatzeko, horien jarraipena egiteko eta hobetzeko adierazleak edo prozedurak egotea.

4.– Proposatuko den ekintza-planak baldintza hauek bete beharko ditu: EAeko establezimenduetan bakarrik aplikatzeko formulatzea, erakundearen eta langileen egoerara eta beharretara egokitzea, eta hainbat urterako izatea (gutxienez 3 urterako). Helburuak eta horiek lortzeko neurri zehatzak proposatu beharko ditu programatutako datekin, emaitzak neurtu ahal izateko jarraipenerako adierazleak ezarri, arduradun eragileak eta aukeratutako pertsonak identifikatu, neurri bakoitzari egokitzeko zaion aurrekontua balioetsi, eta jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema bat gehitu.

4. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du dirulaguntza-jarduketan kostuen % 70 gainditu, eta ezingo da erakunde onuraduneko 10.000 euro baino gehiagokoa izan.

5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunak programa honetarako izapidetze guztia era telematikoan egitera behartuta daude.

2.– Eskabide-eredua, agindu honen I. eranskin gisa bildutakoa, eta eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko zehaztapenak <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/> Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoa daude.

3.– Agindu honetako administrazio-prozeduraren informazio-fitxa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri egongo da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1209001/web01-tramite/eu/>

4.– Eskabidearen ondorengo izapidetzeak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, hemen: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikatzeko eta sinatzeko onartzen diren baliabideak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>.

6.– Prozedura ordezkari baten bidez izapidetu ahalko da. Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroan inskribatuta egon eta hori adierazten dutenek ez dute ordezkari eraman beharko. Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroa eskuragarri dago helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

6. artikulua.– Erakunde-eskatzaileentzako baldintza espezifikoak.

Agindu honetako dirulaguntzen onuradun izateko, erakundeek, eskabidea aurkezten den datan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan dauden betekizunak konplizteaz gain, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginekoekin batera, hauek bete beharko dituzte:

a) Erakundeek berezko nortasun juridiko independentea izan behar dute eta dagokien erregistroan izena emanda egon behar dira. Nortasun juridiko ezberdinez osatutako taldeak dituzten erakundeek aparte aurkeztu beharko dituzte eskabideak.

Baldintza horren salbuespen bakarrak enpresari gisa jarduten duten autonomoak dira, haiek erakunde-onuraduntzat hartuko dira, eta haien egoera frogatu beharko LAABko (Langile Autonomoen Araubide Bereziko) altaren ebazpenaren bidez.

b) Gehiengo partaidetza edo kontrola sektore publikoko erakunde baten gain ez egotea, ez zuzenean ez zeharka. Beraz, kanpoan gelditzen dira era iraunkorrean sektore publikoaren finantzaketa jasotzen duten erakundeak, eta zuzendaritza organoetan finantza-erakundeek aukeratutako edo proposatutako pertsonak dituztenak.

c) Eskabidea egiten duten erakundeek ezarriko duten kontziliazioari buruzko diagnostikoa eta ekintza-plana EAEko establezimenduetarako izan behar da. Beraz, ezin dira EAetik kanpo dauden establezimenduetarako diagnostikoak edo planak aurkeztu.

d) Erakundeek 10 eta 250 langile artean izan behar dituzte plantillan.

e) Familien eta Haurren Zuzendaritzak sustatutako Kontzilia izeneko bi esperientzia pilotuetan parte hartu duten erakundeak ezingo dira onuradun izan. Esperientzia horiek 2016-2017 eta 2018-2019 urteetan gauzatu ziren, hurrenez hurren.

7. artikulua.– Onuradun izateko baldintza orokorrak.

1.– Ezingo dira onuradun izan egoera hauetakoren batean dauden erakundeak:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko aukeraren galerarekin administratiboki edo penalki zehatuta egotea, edo horretarako gaitasunik gabe uzten duen lege-debeku baten menpe egotea. Zentzu horretan, deialdi honen objektu diren erakundeetatik ezingo dituzte dirulaguntzak jaso sexu arrazoiengatik diskriminatzeagatik administratiboki edo penalki zehatutako erakundeek, ezta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legea jarraituz debeku horrekin zehatutakoek ere.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa egunean ez izatea. Erakunde onuradunei egingo zaien agindu honetan aurreikusitako laguntzen esleipena, eta, hala badagokio, ordainketa, edozein diru-itzultze edo zehapen prozedura amaitzearen menpe geratuko dira. Hori horrela izango da prozedura hasi bada Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten izaera horretako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan eta oraindik izapidetze-egoeran badago.

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ez izatea. Beharrezkoa da baldintza hori betetzea bai onuradun-izaera izateko, bai esleitutako dirulaguntza eman arte izaera hori mantentzeko.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren bat izatea dirulaguntzen onuradun izateko.

2.– Aurreko ataleko a) eta b) letratako baldintzen justifikazioa egiteko modua eskabide-formularioko zehaztapenekin egindako erantzukizunpeko adierazpen baten bidezkoa izango da.

Administrazioak egiaztatuko du ofizioz c) letrako baldintzak betetzen diren, non eta erakunde-eskaintzailea ez den egiaztapen horren kontra azaltzen. Kasu horretan, erakundeak zerga-betebeharrak edo Segurtasun Sozialeko betebeharrak konplitzen dituela frogatzeko horretarako eskumena duten erakundeek egindako ziurtagiriak entregatu beharko ditu.

8. artikulua.– Dirulaguntza-gastuak.

1.– Dirulaguntza-gastutzat hartzen dira dudarik gabe diruz lagundutako jarduera direnei dagozkienak, zeharo beharrezkoak direnak eta agindu honen 3.1 artikuluko zehaztutako epean egiten direnak.

2.– Agindu honetan aurreikusitakoaren ondoretarako, «egindako gastu»tzat hartzen da 16. artikuluan ezarritako justifikazio-epea bukatu baino lehen eraginkortasunez ordaindu dena.

3.– Berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera duten zergak inoiz ez dira dirulaguntza-gastu kontsideratzen.

4.– Dirulaguntza-gastuek, behar bezala banakatuta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluko baldintzak bete behar dituzte.

5.– Aurreko paragrafoetan aurreikusten ez den guztirako, hau beteko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako azaroaren 17ko lege horren Erregelamenduaren 83. artikuluan xedatutakoa.

6.– Laguntza horien kasuan, dirulaguntza-gastuak % 100ean azpikontrata daitezke.

9. artikulua.– Erakunde onuradunen konpromisoa.

Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen esleipena eta ordainketa erakunde onuradunek konpromiso hauek haien gain hartzearen, edo, hala badagokie, frogatzearen mende geratzen da:

a) Planak aurreikusten dituen neurrietakoren bat martxan jartzea Plana egiten denetik urtebetera.

b) Agindu honen, II. eranskinean biltzen diren baldintzetan, erakundeko pertsona bat prozesua dinamizatzearen arduradun aukeratzea.

10. artikulua.– Eskabideak.

1.– Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta irailaren 30ean bukatuko da, egun hori barne.

2.– Eskabidea oso-osorik bete beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publiko egoitza elektronikoan agindu honetako I. eranskinean gehitzen den eredu normalizatuaren arabera, eta proposamen teknikoarekin (II. eranskinean) eta agindu honen 11. artikuluan zehaztutako gainerako beharrezko agiriekin bidali beharko da.

3.– Eskatzaile bakoitzari ez zaio dirulaguntza bat baino gehiago emango. Erakunde batek eskabide bat baino gehiago aurkezten badu, sarrera erregistroaren arabera epearen barruan aurkeztutako azkena bakarrik hartuko da kontuan eta aurrekoei uko egiten zaiela deklaratu da horretarako emandako ebazpen baten bidez.

4.– Erakunde eskatzaileek hautatzen duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskabidea, horretarako agiriekin batera. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 6.1 artikuluan ezartzen den bezala.

5.– Erakunde eskatzaileak adieraziko du eskabideko datuak eta horrekin batera bidalitako agiritakoak zuzenak direla, eta laguntza horien onuradun izateko indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak betetzen dituela.

11. artikulua.– Entregatu beharreko agiriak.

1.– Dirulaguntzak eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen direla frogatzeko, agiri hauekin batera entregatu beharko da eskabidea:

a) Erakundearen estatutuak edo eraketa-agiria, eta dagokion erregistroko inskripzio-ziurtagiria.

Autonomoek, LAABko (Langile Autonomoen Araubide Bereziko) altaren ebazpena bakarrik aurkeztu beharko dute.

b) Plantillako langile-kopurua frogatzeko egiaztagiriak, eskabidearen aurreko hilabeteko Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinen bidez, TC1 eta TC2 ereduak.

c) II. eranskina, bizitza-pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliaziorako diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko proposamen teknikoa ebaluatzeko aurkezten duena. Proposamen teknikoa II. eranskinaren formatuan bakarrik aurkez daiteke.

2.– Eranskin zehatzik ez duten agiriak bidaltzeko, agiri originala elektronikoki bidaliko da, eskaeraz eta sinatuta, webgune honen bidez: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

3.– Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoak edozein momentutan eskatu ahalko du agiri originalak entregatzea, agiriak egiazkoa diren ziurtatzeko.

12. artikulua.– Eskabideak zuzentzea eta hobetzea.

Dirulaguntza-eskabidea ez balego zeharo beteta, aurreko artikuluan ezartzen den nahitaezko agiri guztiekin entregatuko ez balitz, edo eskabideak beharrezko baldintza guztiak beteko ez balitu, edo horren edukia nahikoa ez balitz, erakunde eskatzaileari errekerituko litzaioke 10 lan-eguneko epean hutsuneak zuzentzeko edo agiriak entregatzeko edo osatzeko. Gainera, erakundeari adieraziko litzaioke aipatutakoa egin ezean, eskabidean atzera egingo litzatekeela, eta laguntzak kudeatzen dituen organoa egoera hori adieraziz esanbidezko ebazpena ematera behartuta egongo litzateke, baita hori jakinaraztera ere, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidegoaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoarekin.

13. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko eta hedatzeko modua.

1.– Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren zuzendaria izango da agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak kudeatzeko eta ebazteko eskumena duen organoa. Gainera, horrek hautatuko ditu dirulaguntzen ebazpen-proposamena egiteko eskumena duen balorazio-batzordeko kideak, baita batzordeko idazkaritzaz arduratuko den pertsona ere.

2.– Balorazio-batzorde hori gutxienez hiru pertsonak eta gehienez lau pertsonak osatuko dute eta Familia eta Haurren Zuzendaritzako goi-karguak edo langile publikoak izan beharko dira.

3.– Balorazio-batzordean sexu bateko eta besteko pertsonen kopurua orekatua izateko beharrezko neurriak hartuko dira, eta horren osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da organoa osatu aurretik. Agintaritzako langile publiko bat Kide Anitzeko Organoaren Idazkari izendatuko da, eta hitza izango du, baina botorik ez.

4.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen esleipenak eta ukapenak Familia eta Haurren zuzendariaren ebazpen bakarraren bidez gauzatuko dira. Ebazpen bakar hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuta jakinaraziko da, eta jakinarazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Era berean, dirulaguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda EHAAan argitaratuko da, era orokorrean hedatzeko.

5.– Erakunde-eskatzaileek abisu bat jasoko dute eskabidean idatzitako gailu elektronikoan edota helbide elektronikoan, esanez aipatutako egoitza elektronikoan prozeduraren ebazpenaren jakinarazpena kontsultatzeko prest dagoela. Abisu hori gauzatu ez izanak ez du eragotziko jakinarazpena erabat baliozkotzat hartzea.

6.– Aurreko paragrafoari dagokion ebazpenak ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, haren aurka, gora jotzeko errekursoa jarri ahalko zaio Gizarte Politiketako sailburuordeari,

jakinarazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin.

7.– Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa jakinarazteko gehiengo epea sei hilabetekoa izango da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, epe hori jakinarazpena egin gabe bukatzen bada, erakunde interesdunek dirulaguntza-eskabidea gaitzetsizat jo dezakete.

8.– Erakunde onuradunei egingo zaien agindu honetan aurreikusitako laguntzen esleipena, eta hala badagokie, ordainketa, edozein diru-itzultze edo zehapen prozedura amaitzearen menpe geratuko dira. Hori horrela izango da prozedura hasi bada Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten izaera horretako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan eta oraindik izapidetze-egoeran badago.

14. artikulua.– Dirulaguntzak balioesteko irizpideak.

1.– Deialdi hau norgehiagoka-prozeduraren bidez ebatziko da. Norghegiagoka gisa ulertzen da eskabideak konparatuta laguntzak emateko prozedura. Eskabideen arteko lehen lehentasuna ezartzen da artikulua honetan zehaztutako esleipen-irizpideen arabera eta horrela, aipatutako irizpideekin gehiengo balorazioa lortu dutenei bakarrik ematen zaie dirulaguntza. Hainbat erakundek puntu kopuru bera lortu badute, berdinketa hurrengo atalean zehazten den d) irizpidean puntu gehien lortu dutenen alde ebatziko da.

2.– Balorazio-batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan dirulaguntzak ematerakoan, irizpide horietako bakoitzari egokitutako puntuazioa kontuan hartuta:

A) Erakunde-eskatzaileak kontziliazioarekin duen harremana (gehienez 16 puntu).

A.1.– Erakundeak izandako ibilbidearen laburpena kontziliazioaren arloan. Esperientzia eta ibilbidea (gehienez 4 puntu).

Ibilbidea berdintasunean (2 puntu).

Berdintasun-plan bat duten erakundeei 2 puntu emango zaizkie (erantsi egin beharko dute).

Kontziliazioaren arloan egindako ibilbidea (gehienez 2 puntu):

– Nolabaiteko esperientzia du uztartze-lanean. Ez du kontziliazio-planik, baina kontziliazio- eta malgutasun-neurriak aplikatzen ditu, legeek ezarritakotik harago; esperientzia puntualak ditu kontziliazioan (2 puntu).

– Ez du ez esperientziarik ez aurretiko ibilbiderik kontziliazioan (puntu 1).

– Entitateak badauka kontziliazio-plana (0 puntu).

A.2.– Jarrera eta motibazioa proiektuaren aurrean (gehienez 4 puntu).

Proposamena Zuzendaritzatik abiatzea balioetsiko da, aurretik aldeko jarrera izatea, kontziliazioaren bidean ematen diren lehen pausoak izatea eta plantilla jakinaren gainean jarri izana.

A.3.– Proiektu hori martxan jartzeko arrazoiak eta erakundeak ekimen horrekin lortu nahi dituen helburuak (gehienez 4 puntu).

– Ardura partekatuarekin eta enpresak eta plantillak elkarren mesederako egitearekin lotutako arrazoiak daude (2 puntu).

– Helburuak zehatzak dira, eta berariaz erakunderako finkatutakoak (2 puntu).

A.4.– Laguntzaren eraginaren aurreikuspena erakunde barnean eta bertatik kanpo (gehienez 4 puntu).

– Erakunde barruan aurreikusitako ondorio kualitatiboak eta kuantitatiboak. Pertsona kopuruaren eta sexuaren arabera banakatutako adierazleak izatea (2 puntu).

– Erakundetik kanpo aurreikusitako ondorio kualitatiboak eta kuantitatiboak. Pertsona kopuruaren eta sexuaren arabera banakatutako adierazleak izatea (2 puntu).

B) Proiektua erakunde-eskatzaillearen ezaugarrietara eta beharretara moldatzea (gehienez 25 puntu).

B.1.– Erakundearen egoerara eta beharretara duen egokitze-/doitze-maila (gehienez 5 puntu).

Lan-proposamenean planteatzen den proiektu mota azaltzen da oinarri izanda jomuga duen erakundearen ezaugarri propioen aurretiazko analisia (tamaina, sektorea, lanpostu motak, Zuzendaritzaren jarrera, aurretik kontziliazioan izan duen ibilbidea/esperientzia, erritmoak...).

B.2.– Proiektua erakundearen politiketan integratzeko eta plantillan zabaltzeko formulak (erakundearen kontziliazioari buruzko diagnostikoa eta ekintza-plana egitean erabiltzea aurreikusten diren lan-dinamikak eta informazioa zabaltzeko dinamikak) (gehienez 5 puntu).

– Diagnostikoa eta plana enpresako politikan nola integratu proposatzen du (3 puntu).

– Kontziliazioa hobetzeko proiektuaren zabalkuntza ziurtatzeko ekimenak proposatzen ditu (diagnostikoa eta plana) (2 puntu).

B.3.– Proiektua sustatzeko taldea: osaera eta izango dituela aurreikusten diren funtzioak (gehienez 5 puntu).

– Balioetsiko da hauek barne hartzen dituen talde-eragile bat proposatzea: zuzendaritza, giza baliabideetarako/pertsonak kudeatzeko eskumena duen saila, ordezkaritza sindikala eta plantillaren ordezkaritza.

– Balioetsiko da taldeari bi faseetan zehar (diagnostikoa eta Plana) esleituko zaizkion funtzioak eta lanerako metodologia zehaztea.

B.4.– Proiektua erakundearen beharretara egokitzea denborari dagokionez (gehienez 5 puntu).

Proiektuak diagnostikoaren eta planaren lanketa moldatzen du erakundearen produkzio-erri-moetara eta bertako sail eta lanpostuetara.

B.5.– Ekonomikoki egokitzea (gehienez 5 puntu).

Produktuaren azken aurrekontua ezartzeko egindako kalkulua azaltzen da (gehitutako kontzeptuak, saioko prezioa, ordainsari profesionalak...).

C) Kontziliaziorako diagnostikoaren lanketa (gehienez 25 puntu).

C.1.– Diagnostikoarekin lortu nahi diren helburuak (5 puntu).

C.2.– Diagnostikoan aztertuko diren esparruak/alderdiak (5 puntu).

C.3.– Erakundearen diagnostikoa eskaintzeko informazioa lortu eta egiaztatu ahal izateko aurreikusten den metodologia. Datuak biltzeko erabiliko diren lanerako erreminta motak (inkestak, elkarrizketak...) (5 puntu).

C.4.– Parte-hartzeko prozesuak (5 puntu).

Partaidetza-prozesuek plantilla osoari eta ordezkarietza sindikalari egindako kontsulta jasotzea baloratuko da.

– Langile guztiei eta sindikatuetakako ordezkarietza galdetu zaie (5 puntu).

– Lanpostu/atal mota desberdinen ordezkarietza bati eta ordezkarietza sindikalari galdetu zaie (3 puntu).

– Ordezkarietza sindikalari bakarrik galdetu zaio (puntu 1).

– Ez da kontsultatu. Ez dago partaidetza-prozesurik (0 puntu).

C.5.– Plantillan emaitzak zabaltzeko formulak (5 puntu).

– Diagnostikoaren emaitzak erakundeko barne-eragileei jakinarazteko erabiliko diren erremintak azaltzea balioetsiko da (2 puntu).

– Plantilla osoari jakinaraztea balioetsiko da (3 puntu).

D) Kontziliaziorako ekintza planaren lanketa (gehienez 25 puntu).

D.1.– Planaren lanketarekin lortu nahi diren helburuak (6 puntu).

Balioetsiko da banakatzea Planaren lanketarekin zein helburu lortu nahi diren talde ezberdinetarako:

– Helburuak erakunderako (2 puntu).

– Helburuak plantillarentzako (2 puntu).

– Beste helburu batzuk (gizarterako, kulturarako...) (2 puntu).

D.2.– Ekintza-eremuak eta ildo estrategikoak zehaztea (7 puntu).

Planaren ekintzarako esparruak/ardatzak ezartzeko zein metodologia erabiliko den eta zein ildo estrategiko izan behar dituen azaltzen du.

D.3.– Helburuak eta neurriak zehazteko, aukeratzeko eta lehenesteko erabiliko diren irizpideak eta metodologia (8 puntu).

– Helburuei, neurriei eta datak programatzeari dagokionez lehenetasunak ezartzeko erabiliko den metodologia azaltzen du (gehienez 4 puntu).

– Helburuak eta aplikatu beharreko neurriak lehenestea zein eragileren esku egongo den azaltzen du. Hausnarketa horretan plantillak parte hartzea balioetsiko da (gehienez 4 puntu).

D.4.– Planaren datak programatzea (4 puntu).

Planaren iraupena erabakitzeke irizpideak azaltzen ditu.

E) Kontziliaziorako ekintza-planaren ezarpena eta jarraipena (gehienez 9 puntu).

E.1.– Erakundea osatzen duten eragileei plana jakinarazteko/zabaltzeko metodologia. Balioetsiko da plana bai erakunde barruan (plantillari) bai erakundetik kanpo (bezeroei, webgunean...) zabaltzea (5 puntu).

– Plana erakundeko barne-eragileei jakinarazteko erabiliko diren erremintak, prozedurak eta baliabideak azaltzen ditu (gehienez 2 puntu).

– Plana erakundearen barnean zehazki prozesuaren zein momentutan zabalduko den azaltzen du (puntu 1).

– Plana publikoki nola zabalduko den azaltzen du (bezeroak, webgunea...) (gehienez 2 puntu).

E.2.– Neurriak jarraitzeko eta gauzatzeko eta planeko helburuak ebaluatzeko eta berraztertzeke erreminta/egitura zehatzak proposatzea (4 puntu).

– Neurriak gauzatzea errazteko erremintak sortzea planteatzen da.

– Planaren eboluzioaren jarraipena egiteko adierazle zehatzak ezartzeko beharra dagoela adierazten du, eta adierazle zehatz batzuk proposatzen ditu.

– Ekintza-plana berraztertzeke eta eguneratzeko formulak proposatzen dira.

– Proiektuak jarraipena egiteko egiturak / talde egonkorak proposatzen ditu.

3.– Balioespen teknikoak II. eranskinean horretarako zehaztutako esparruetan egindako ekarpenei bakarrik egingo die erreferentzia, beraz, ez da eskabideak atxikita izan dezakeen beste agiririk kontuan hartuko.

4.– 50 puntu baino gehiago lortzen duten proposamen teknikoak baietsiko dira, eta puntuazio altuenetik baxuenera ordenatuko dira. Ondoren, lortutako puntuazioari dirulaguntza-jarduketan kostuaren % 70 esleituko zaio, gehienez 10.000 euro, deialdirako erabilgarri dagoen kreditua bukatu arte.

5.– Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proposamenak ezetsi egingo dira, eta dirulaguntzen organo kudeatzailea esanbidezko ebazpena egitera behartuta dago egoera hori adieraziz. Ebazpen hori egiteko arrazoi egokiak izan behar dira, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.2 artikuluan xedatutakoarekin.

15. artikulua.– Laguntzak ematearen aldeko ebazpena aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko baldintzen aldaketa oro Familia eta Haurren Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio.

2.– Dirulaguntza emateko kontuan hartzen diren baldintzak aldatzeak laguntza horiek ematearen aldeko ebazpena aldatzea dakar. Betiere betetzat jotzen badira dirulaguntzaren helburua, onuradun izateko baldintzak eta ezarritako betebeharrak, eta, hala badagokio, Administrazioek edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea.

Adierazitako zentzuan, dirulaguntzaren objektua bete dela ulertzen da gutxienez proiektu edo programa osoaren % 80 bete denean, eta, betiere, baremoa ezartzeko kontuan hartu diren irizpide objektiboak mantendu eta bete badira.

3.– Horretarako, balorazio-batzordearen analisia eta balorazioa baino lehen, ebazpen egokia egingo da, eta jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa doituko da, esleipenerako ezarritako irizpide

eta mugak ezarriz eta, hala badagokio, erakunde onuraduna gehiegizko zenbatekoa itzultzera behartuz.

16. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko modua.

1.– Ordainketa zatikatua izango da. Lehenengo zatia, esleitutako dirulaguntzaren % 70, dirulaguntza ematen den momentuan ordainduko da, eta gainerako % 30a jarduketa guztiak egin ondoren, eta sortutako gastu guztiak 2023ko maiatzaren 31 baino lehen justifikatu ondoren emango da, hurrengo artikuluan zehazten den moduan.

Bigarren ordainketa 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera egingo da, diruz lagundutako jarduera guztiak justifikatu ondoren.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako ondoreetarako, erakunde onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Egindako diagnostiko osoa, dirulaguntza esleitzeko aurkeztutako proposamen teknikoarekin bat datorrena. Honek laguntza emateko balioetsitako proposamena bete dela frogatzeko balio du; ez badator bat, behar bezala justifikatu beharko da.

b) Erakundearen kontziliaziorako ekintza-plana, dirulaguntza esleitzeko aurkeztutako proposamen teknikoarekin bat datorrena; ez badator bat, behar bezala justifikatu beharko da.

c) Jasotako funtsei emandako erabilera justifikatzeko memoria. Memorian hau deskribatuko da aurreikusitako lanerako egutegiaren arabera: lortutako helburuak eta lanen jarraitutako prozesua, diruz lagundutako jarduketaren irabaziak eta amaierako gastuak.

d) Emandako laguntza teknikoa frogatzen duen banakatutako faktura, baita eskainitako aholkularitza-zerbitzuen ordainketaren egiaztatzea ere.

Merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo administrazioan eraginkorrak diren fakturen edo frogagiri baliokideen zehaztasuna nahikoa izango da diruz lagundutako jarduketetan egindako gastua edo horietan erabilitako funtsak era egokian erabili direla frogatzeko. Hau da, bankuko egiaztagirien frogagirian kontzeptua eta bankuko egiaztagiri horren bidez ordaindutako fakturen zenbakiari erreferentzia agertu behar dira.

Era berean, gastuak faktura elektronikoen bidez ere frogatu ahalko dira zerga-eremuan onartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Jarduketak dirulaguntzaz gain, funts publikoekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu diren kasuetan, hau justifikatu beharko da: funts horien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduketetan erabiltzeko modua.

3.– Ordainketa egiteko, Familia eta Haurren Zuzendaritzak edozein momentutan eskatu ahalko du agiri originalak entregatzeko agiriak egiazkoa diren ziurtatzeko.

4.– Diruz lagundutako jarduketaren behin betiko erabateko kostua dirulaguntza kalkulatzeko kontuan hartu zenaren aldean gutxitzen den kasuetan, edo gastuaren egiaztagirien bidez justifikatutako zenbatekoa egindako jarduketan erabateko kostua baino baxuagoa dena, dagokion likidazioa egingo da dirulaguntza benetako kostuari dagokion zenbatekoari doitu.

5.– Dirulaguntza era egokian aplikatzen dela ziurtatzeko, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak; Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egokiak diren inspezioak, jarraipenak eta kontrolak egin ditzakete ezarritako epean.

17. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honek erregulatzen dituen dirulaguntzak bateragarriak dira Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoko erakundeek ematen dituzten beste laguntza batzuekin.

2.– Agindu honek erregulatzen dituen dirulaguntzak bateragarriak dira, objektu eta helburu berarekin, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek ematen dituztenekin. Edonola ere, dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du dirulaguntzaren objektu den kontratazioaren edo jardueraren erabateko kostua gainditu.

3.– Beste laguntza batzuekin batera jasotzen bada, guztien baturak dirulaguntzaren objektu den kontratazioaren edo jardueraren erabateko kostua gainditzen badu, gainditzen duen zati hori bateraezintzat joko da, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak emango duen laguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

18. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Hargatik eragotzi gabe laguntza lerro bakoitzerako ezarriko diren betebeharrak zehatzak, erakunde onuradunek betebeharrak hauek dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Zentzu honetan, dirulaguntza ematearen aldeko ebazpena jakinarazten denetik hamar egunera erakunde onuradunek ez badute berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten, onartzen dutela ulertuko da.

b) Dirulaguntza ematearen funts den edo diren jarduera edo jarduerak burutzea.

c) Dirulaguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea eta Familia eta Haurren Zuzendaritzak diruz lagunduta garatuko den jarduera edo garatuko diren jarduerak egiaztatzea onartzea.

d) Familia eta Haurren Zuzendaritzan betekizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea, baita jarduera garatu dela edo jarduerak garatu direla, eta dirulaguntza ematearen helburua betetzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura jasotako laguntzak eta dirulaguntzak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko araubide zehatzean aurreikusitakoak egiaztatzeko Familia eta Haurren Zuzendaritzaren jarduketak onartzea, baita Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkion kontrolerakoak ere.

f) Familia eta Haurren Zuzendaritzari jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu jatorri duten dirulaguntzen edo laguntza-eskabideak edo horiek lortu izana, horretarako diru-sarrerak edo baliabideak.

g) Familien eta Haurren Zuzendaritzari dirulaguntza emateko kontuan izandako edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatu izanaren berri ematea.

h) Hauek izatea: kontabilitate-liburuak, izapideak eginda dituzten erregistroak eta behar bezala ikuskatutako gainerako agiriak, kasu bakoitzari aplikatzen zaion merkataritza- eta sektore-legediak eskatutako baldintzekin; baita egiaztapenerako eta kontrolerako ahalmena era egokian erabiltzen dela ziurtatzeko deialdi-agindu honek eskatu adina kontabilitateko egoera-orri eta erregistro zehatz ere.

i) Eskatutako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan objektu izan daitezkeen bitartean.

j) Familia eta Haurren Zuzendaritzaren erakunde marka jartzea hori inprimatzea edo erakustea posible den diruz lagundutako jardueren publizitate edo propaganda guztian, Eusko Jaurlari-

tzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua (1999ko azaroaren 26ko EHAA, 205. zk.) arautzen duen Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 4ko 46/2017 Ebazpenean (2017ko apirilaren 12ko EHAA, 72. zk.) ezarritakoaren arabera. Familia eta Haurren Zuzendaritzari eskatu ahalko zaio marka. Dena dela ere, diruz lagundutako proiektutik sortzen den agirian Familia eta Haurren Zuzendaritzaren logotipoa agertu beharko da. Jardueraren publizitatean edo dirulaguntzaren argitalpenean adieraziko da jardueraren edukien ardura diruz lagundu den erakunde publikoak hartu duela.

k) Agindu honetan edo dirulaguntzetan aplika daiteken araudian aurreikusten diren kasuetan jasotako funtsak itzultzea.

l) Administrazioak laguntzen ordainketa egin ahal izateko, erakunde-eskatzailleak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan egon beharko du. Erakundea ez badago han erregistratuta edo Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroko bankuko datuak aldatu nahi baditu, <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuena-aldaketa/> webgunearen bitartez egin beharko du.

m) Diruz lagundutako jardueran edo jardueretan egin nahi den edozein aldaketa idatziz jakinaraztea, horretarako espresuki Familia eta Haurren Zuzendaritzaren onarpena izanda.

n) Familia eta Haurren Zuzendaritzari agindu honen 16.2 artikuluan aurreikusitako justifikaziorako agiriak bidaltzea, eta horren jarraipenean eta dagokion ebaluazioan laguntzea.

o) Adierazitako ezaugarriak dituen dirua itzultzeko prozeduraren bat edo prozedura berresleren bat hasiz gero, Familia eta Haurren Zuzendaritzari jakinaraztea.

p) Eta orokorrean beste edozein jakinaraztea, bat etorritz, alde batetik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 50.2 artikuluan ezarritakoarekin eta, bestetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluekin.

19. artikulua.– Betebeharrak ez-betetzea eta ardurak.

1.– Ez-betetzetzat joko dira:

a) Jasotako dirulaguntzak zeharo edo partzialki agindu honetan aurreikusten ez diren jardueretarako erabiltzea.

b) Agindu honetan ezartzen diren betebeharrak urratzea, edo, hala badagokio, dirulaguntzak ematean ezartzen direnak ez betetzea.

c) Aurkeztutako proiektuan dirulaguntza-programa honetako Zuzendaritza kudeatzaileak baimendu ez duen edozein aldaketa egitea.

d) Diruz lagundutako proiekturako ezarritako epeak gainditzea, ez badago hori aldatzeko baimenik.

e) Kasua bada, Dirulaguntzaren Likidazioaren Ebazpenean adierazten den zenbatekoa ezarritako epean ez itzultzea.

f) Hemen aurreikusten den beste edozein kasutan: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak agindutako testu bategina).

2.– Aurreko paragrafoan bildutako kasuren bat gertatu dela egiaztatzen bada, esleitutako eta jasotako zenbatekoak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37.1 artikulua araberako berandutze-interesa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaio. Itzulpen hori egin beharko da lege hauek aurreikusitakoa alde aurretik bete ondoren, eta hauen baldintzekin: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina eta bermeen erregimen orokorra, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen itzulpenak erregulatzen dituen eta horien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

3.– Itzuli beharreko zenbatekorik bada, irizpide hauek kontuan hartuta zehaztuko da zein den:

a) Aurreikusitako helburuak betetzen ez badira edo jarduerak zeharo gauzatu ez badira, baina erakunde onuraduna guztiz betetzera nabarmen hurbiltzen bada eta zalantzarik gabe konpromisoak betetzera daraman jarrera duela frogatuz gero, lorpen-maila balioztatuko da, eta dirulaguntzaren zenbatekoa maila horrekiko proportzionala izango da.

Aipatutako ondoreetarako, erakundea horiek guztiz betetzera nabarmen hurbiltzen dela ulertuko da gutxienez programako proiektuaren % 80 gauzatu bada, betiere baremaziorako kontuan hartu diren irizpide objektiboak mantendu eta horiek betetzen badira.

Lehenago aipatutako kasuetan, itzuli beharreko zenbatekoa bete ez den benetako ehunekoarekin proportzionala izango da.

Gauzatutakoa ez bada % 80ra iristen, lehenago kobratutako dirulaguntza eta dirulaguntza publiko dagozkien interes legalak itzuliko dira.

b) Agindu honetan aurreikusitako laguntzen Zuzendaritza kudeatzailearen baimenik gabe Laguntza-eskabidean aurreikusten diren jarduketak eta agiri osagarriak aldatzen badira, aldatutako jarduketei dagozkien zenbatekoak itzuli beharko dira.

c) Laguntzak justifikatzeko beharrezko agiriak aurkezten ez badira, jasotako eta justifikatu gabeko laguntzak itzuli beharko dira, eta, hala badagokio, jasotzeke dauden zenbatekoak kobratzeko eskubidea galduko da.

20. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Agindu hau aplikatzeko jasotako datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta horretarako aplikatu daitezkeen gainerako araudiaren arabera tratatuko dira.

Datu Pertsonalari buruzko informazio gehiago ikusteko, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/rgpd/1209001>

21. artikulua.– Estatuaren laguntzak.

Agindu honetan aurreikusten diren aginduak, Europako legediaren arabera, ez dira estatuaren laguntzat jotzen, eta, hori dela eta, ez da Europar Batasunaren aurrean inongo izapidetzerik behar, eta Batasunari ez zaio jakinarazpenik egin behar.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Administrazio-bideari amaiera ematen dion agindu honen aurka, aukerako berrezartze-erreturto bat jar diezaiokete interesdunek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari

agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hila-
beteko epean, bestela zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal
Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan aldizkari bera argita-
ratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honi dagozkion dirulaguntzak lege hauetan ezarritakoaren menpe daude: Administrazio
Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoko
Erregimen Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekre-
tuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko
VII. tituluko VI. tituluaren eta III. kapituluaren, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko oina-
rriko erregulazioan eta azken horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Eragina.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da
eragina izaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 6a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

I. ERANSKINA

ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA-ESKABIDEA, AHOLKULARITZA-ERAKUNDE BATEN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO KONTZILIAZIOAREN ARLOAN DIAGNOSTIKO BAT ETA PLAN BAT LANTZEKO

ESKABIDEA ZER ERAKUNDE/INSTRUKZIO-ORGANORI ZUZENTZEN ZAION
FAMILIA ETA HAURREN ZUZENDARITZA

ESKATZAILEA

- TITULARRA
- ORDEZKARIA

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

TITULARRA

- ERAKUNDEAREN IZENA: _____
- TELEFONOA: _____
- EMAILA: _____
- WEBGUNEA: _____

ORDEZKARIA:

- IZENA ETA BI ABIZENAK / ERAKUNDE ORDEZKARIAREN IZENA

- _____
- TELEFONOA: _____
- EMAILA: _____

LAGUNTZA ESKATZEN DUEN ERAKUNDEAREN BESTE DATU BATZUK

- SORTU ZEN URTEA:
- JARDUERA-SEKTOREA:
- ERAKUNDEAREN TAMAINA
 - TXIKIA (10≥49 LANGILE)
 - ERTAINA (50≥250 LANGILE)
- PLANTILLA:
 - PLANTILLAKO LANGILEEN GUZTIZKO KOP.:
 - GIZONEN GUZTIZKO KOP.:
 - EMAKUMEEN GUZTIZKO KOP.:
- DATU FISKALAK
 - ZERGAK ORDAINTZEN DITUEN LURRALDEA: BIZKAIA __ ARABA __ GIPUZKOA __

○ BEZ AURKEZTETIK SALBUETSITAKO ERAKUNDEA:

- BAI (Salbuetsita dagoela adieraziz gero, egoera horren ziurtagiria aurkeztu behar duzu).
- EZ

○ ESTABLEZIMENDUA Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE):

Kontziliazioaren arloko egoeraren diagnostikoan eta ekintza-planean aipatzen diren EAEko establezimenduen zerrenda:

--

○ ESKATZAILEA IZATEKO GAINERAKO BALDINTZAK BETETZEA (AGINDUAREN 6. ART.). Markatu betetzen direnak:

- Erakundeak nortasun juridiko propioa eta independentea du, eta dagokion erregistroan inskribatuta dago.
Nortasun juridiko desberdinez osatutako taldeetako erakundeen kasuan bakoitzak bere eskabidea aurkeztu beharko du.

Baldintza hori enpresaburu gisa jarduten duten autonomoen kasuan soilik salbuesten da, horiek erakunde onuradun izango baitira. Kasu horretan, egoera hori egiaztatu beharko dute Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) alta emateko ebazpenaren bidez.

- Erakundeari lehen aipatutako salbuespena dagokio: enpresaburu gisa jarduten duten pertsona autonomoak erakunde onuraduntzat hartuko dira. Kasu horretan, egoera hori egiaztatu beharko dute Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) alta emateko ebazpenaren bidez.

- Sektore publikoko inongo erakundek EZ du partaidetza edo kontrol gehiengorik, ez zuzenean ez zeharka, erakundean.

- Erakundeak ez du parte hartu Familia eta Haurren Zuzendaritzak sustatutako Kontzilia izeneko bi esperientzia pilotuetan, 2016-2017 eta 2018-2019 urteetan, hurrenez hurren.

- Erakundeak eskabide hau egiten du EAEn dituen establezimenduetarako diagnostikoa eta ekintza-plana lantzeko (ezin da diagnostikorik edo planik planteatu EAetik kanpo dauden establezimenduetarako).

- Erakundeak 10 eta 250 langile bitarteko plantilla du.

DIRULAGUNTZA ORDAINTZeko DATUAK**KONTUAREN TITULARRA:****LAGUNTZA SARTZEA NAHI DUZUN BANKU-KONTUAREN ZENBAKIA (IBAN):*****HIRUGARRENAREN ALTA**

Dirulaguntzaren ordainketa jaso ahal izateko, erakunde eskatzaileak HIRUGARREN gisa agertu behar du Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailean.

HIRUGARREN gisa ALTA eman dezakezu, aurretiko ordainketa-harremanik izan ez baduzu, edo zure Hirugarrenaren Alta aldatu, zure banku-datuak aldatu badituzu.

Esteka**PROIEKTUAREN GASTUAK****KONTZILIAZIOAREN ARLOAN DIAGNOSTIKOA ETA PLANA LANTZEKO AHOLKULARITZA-ERAKUNDEAREN ZERBITZUEN AURREKONTUA (BEZik gabe)**

_____ €

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA ZENBATEKOA

_____ €

(Diruz lagun daitekeen gehieneko ehuneko % 70 da)

XEDE BERERAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA. (Markatu dagozkionak)

Erakunde eskatzaileak hau adierazten du:

- Ekitaldi honetan, ez da jasotzen ari administrazio publikoek edo erakunde pribatuek xede bererako emandako laguntzarik edo dirulaguntzarik.
- Ekitaldi honetan, xede horretarako beste laguntza batzuk eskatu ditu, eta oraindik ez dira ebatzi. (Aukera hau markatuz gero, zehaztu zeintzuk, zein erakunderi eta zein zenbat)

- Ekitaldi honetan, xede horretarako beste laguntza batzuk eskatu ditu, eta eman egin zaizkio. (Aukera hau markatuz gero, zehaztu zeintzuk, zein erakunderi eta zein zenbat)

JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Adierazi nor izango den harremanetarako pertsona, espediente hau izapidetzen den bitartean administrazioak bidaltzen dituen jakinarazpenak eta komunikazioak igorriko zaizkion erakundea ordezkatzeko duena:

- HARREMANETARAKO PERTSONA:
- KARGUA:
- HARREMANETARAKO TELEFONOA:
- HARREMANETARAKO EMAILA:

JAKINARAZPEN- ETA KOMUNIKAZIO-KANALA

Laguntza hauek izapidetzeko, kanal elektronikoa baino ez da erabiliko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua).

Kanal hori erabiltzeko esan nahi du jakinarazpenak eta komunikazioak espediente elektronikoko jakinarazpenen eta komunikazioen erretilura bidaltzen direla, «Nire karpeta» atalean. Sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da.

Jakinarazpenen bat duzula adierazten duten abisuak

«Nire karpeta» atalean jakinarazpenen bat edo komunikazioen bat duzunean, abisu bat bidaliko dizugu ondoren adierazten diguzun posta elektronikora eta telefono mugikorrera:

Posta elektronikoa: _____

Posta elektronikoaren konfirmazioa: _____

Telefono mugikorra: _____

Kanal elektronikoari buruzko oharra:

Jakinarazpen elektronikoa ikusteko, «Nire karpeta» atalean sartzen ez bazara, jakinarazitzat joko da «Nire karpeta» atalean eskuragarri jarri eta 10 egun naturaleko epean. Adierazitako epearen ondoren, jakinarazpena ezetsi duzula ulertuko da, eta hala geratuko da jasota espedientean. Izapidea gauzatutzat joko da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

KOMUNIKAZIO-HIZKUNTZA

Mezu elektronikoen eta abisu-mezuen bidez bidaliko zaizkizun jakinarazpenak eta komunikazioak zuk adierazitako hizkuntzan egongo dira.

HIZKUNTZA:

- GAZTELANIA
- EUSKARA

DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA

Nire komunikazio- eta abisu-datuak, oro har, Eusko Jaurlaritzako sailekin eta erakundeekin ditudan harremanetan erabiltzea nahi dut.

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Zure datu pertsonalak tratamendu-jarduera batean tratatu eta sartuko dira. Tratamendu-jarduerak izen hau du: Laguntzak, dirulaguntzak, sariak eta beka.

- **Arduraduna:** Familia eta Haurren Zuzendaritza, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
- **Xedea:** Eskatzen duten pertsonen edo erakundeen dirulaguntzak ematea. Ikerlanak hedatzea, hainbat euskarritan argitaratuz. Deialdiak ezagutzera ematea. Datu estatistikoak ematea ikerketa xedetzat hartuta.
- **Legitimazioa:**
 - Aplikatu beharreko lege-betebeharrak betetzeko beharrezko tratamendua.
- **Hartzaileak:**
 - Ogasun Publikoa eta Zerga Administrazioa
 - Interesdun legitimoak
 - Organo judizialak
 - Kontuen Epaitegia edo autonomia-erkidegoko baliokidea
 - Erakunde fisiko onuradunen datuak, hala dagokionean, EHAAn argitaratzen eratorriak
 - Familia eta Haurren Zuzendaritzak kontziliazio erantzunkidearen arloan sustatutako ikerketa kuantitatiboak.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- **Informazio gehigarria:** Datuen babesari buruzko informazio osagarria eta zehatza gure webgunean kontsulta dezakezu (www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/062200-cap2-es.shtml)

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

1. Itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean al zaude?

BAI (Aukera hau markatu baduzu, azaldu zeinetan eta erantsi prozeduraren hasieraren kopia)

EZ

2. Jaso al duzu zehapen penal edo administratiborik, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dizunik?

BAI (Aukera hau markatu baduzu, adierazi zein)

EZ

3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako gainerako egoeretakoren batean al dago erakundea, dirulaguntzen onuradun izateko?

BAI (Aukera hau markatu baduzu, adierazi zeinetan)

EZ

4. Erakundeak egunean al ditu dirulaguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak?

BAI

EZ. Erakundeak ordaintzeke ditu dirulaguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak.

(ADIERAZI ZEINTZUK ETA ERANTSI PROZEDURAREN HASIERAREN KOPIA)

5. Betetzen al ditu laguntza hauen onuradun izateko deialdi honetan ezarritako baldintza espezifikoak?

BAI

EZ

6. Erakundeak berdintasun-plana du (erantsi egin beharko du).

BAI

EZ

7. Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan agiri guztiak ere, eta dagokidan erantzukizuna hartzen dut nire gain (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

BAI

EZ

Erantzukizunpeko adierazpenean edo komunikazioan jasotzen den edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltsua bada edo funtsezko zerbait falta bada, edo administrazio eskudunari erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bazaio, edo adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen diren agiriak aurkezten ez badira, edo jakinarazpena egiten bada, ezinezkoa izango da eragindako eskubidea edo jarduera gauzatzen jarraitzea gertakari horien berri izaten den unetik aurrera, egon daitezkeen erantzukizun penal,

zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Aurkeztu beharreko agiriak	Aurkeztua		Izena eta luzapena
	Bai	Ez	
Erakunde eskatzailearen estatutuen kopia / Erakundearen eraketaren eskritura			
Dagokion erregistroko inskripzio-ziurtagiria			
Alta ebazpena LAAB-en (langile autonomoen araubide berezia)			
TC1- Kotizazio-buletina gizarte segurantzako araubide orokorra			
TC2- Langileen zerrenda nominala			
*			
*			
*			

* Erakundeak bere zirkunstantzia espezifikoengatik aurkeztu behar dituen beste agiri batzuk.

OFIZIOZ EGIAZTATZEA

Familia eta Haurren Zuzendaritzak ofizioz kontsultatuko du (39/2015 Legearen 28. artikulua):

- Zerga-betebeharrak egunean izatea (EAEko Foru Aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)
- Gizarte Segurantzaren ordainketa egunean izatea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra – TGSS) interesdunak horren aurka egin ezean, arrazoituta. (9. atala. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa, <https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/065100-cap1-es.shtml>).

ERAKUNDE ESKATZAILEAK BERE GAIN HARTZEN DITUEN KONPROMISOAK

- Erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen du aholkularitza-erakundearen zerbitzuak kontratatzeko, II. eranskinean aurkeztutako proiektua lantzeko. Proiektuan, kontziliazioaren arloan erakundeak duen egoeraren diagnostiko bat egingo da, eta ekintza-plan bat landuko bat arlo horretan.
- Erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen du erakundeko pertsona bat izendatzeko prozesua dinamizatzeke arduradun gisa, agindu honen II. eranskinean jasotako baldintzetan.
- Erakundeak konpromisoa hartzen du bere kontziliazio-planean jasotako neurriren bat abian jartzeko urtebeteko epean, Plana lantzen denetik aurrera.
- Erakundeak konpromisoa hartzen du informazioa emateko, baita diagnostikoa eta kontziliazio-plana lantzeko behar diren baliabide ekonomiko eta pertsonalak emateko ere.

- Erakundeak konpromisoa hartzen du diagnostikoaren eta kontziliazio-planaren emaitzak bere plantillari eta sindikatu-ordezkaritzari ezagutzera emateko.

BORONDATEZKO BAIMENAK

(Adierazi X batez, baimentzen bada)

- Erakundeak baimena ematen dio Familia eta Haurren Zuzendaritzari datu kuantitatiboak estatistika-xedeetarako erabiltzeko, baita kontziliazio-neurriak ezartzen lagunduko duten tresnak lantzeko ere enpresetan edo erakundeetan.
- Erakundeak baimena ematen dio Familia eta Haurren Zuzendaritzari Kontzilia Newsletterra berari bidaltzeko.
- Erakundeak baimena ematen dio Familia eta Haurren Zuzendaritzari kontziliazio erantzunkidearekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa berari bidaltzeko.
- Erakundeak baimena ematen dio Familia eta Haurren Zuzendaritzari kontziliazioaren inguruan gizartea sustatzeko eta sensibilizatzeko berari laguntza eskatzeko.
- Erakundeak baimena ematen dio Familia eta Haurren Zuzendaritzari, diagnostiko bat eta kontziliazio-plan bat lantzeko diruz lagundutako erakundea den aldetik, bere izena argitaratzeko Kontzilia webgunean eta Newsletterren.
- Erakundeak baimena ematen dio Familia eta Haurren Zuzendaritzari bere izena argitaratzeko EAEn kontziliazio erantzunkidea sustatzen duten euskal erakundeen zerrenda batean.

Instrukzio-organoari zuzendua:

II. ERANSKINA

KONTZILIAZIOAREN ARLOAN DIAGNOSTIKO BAT ETA EKINTZA-PLAN BAT LANTZEKO AHOLKULARITZA TEKNIKOA KONTRATATZEKO LAGUNTZA-ESKABIDEAREN BALORAZIO-IRIZPIDEEI LOTUTAKO PROPOSAMEN TEKNIKOA

***Aurretiatzko oharra:**

Eranskin honetan xede horretarako ezarritako laukietan emandako informazioarekin bakarrik egingo da kontziliazioaren arloan diagnostiko bat eta ekintza-plan bat lantzeko aholkularitza-zerbitzuak kontratatzeko laguntza-eskabidearen balorazio tekniko. Ez dira baloratuko erantsitako beste agiri batzuetan ematen diren datuak.

Laukiek 50 lerro hartuko dituzte gehienez.

ERAKUNDEAK HAUTATUTAKO AHOLKULARITZA-ERAKUNDEA, KONTZILIAZIOAREN ARLOAN DIAGNOSTIKOA ETA EKINTZA-PLANA LANTZEKO

- AHOLKULARI GISA JARDUNGO DUEN ERAKUNDEAREN IZENA: _____
- AHOLKULARITZA-ERAKUNDEAREN IFZ/NAN: _____

ERAKUNDE ESKATZAILEAK PROIEKTUA DINAMIZATZEKO ARDURADUN GISA IZENDATUTAKO PERTSONA (SOLASKIDEA ETA BIDERATZAILEA IZANGO DA AHOLKULARITZA-ENPRESARENTZAT):

- IZENA ETA BI ABIZENAK:
- NAN:
- KARGUA:
- ESLEITUTAKO FUNTZIOAK:

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

1. ERAKUNDE ESKATZAILEAK KONTZILIAZIOAREKIN DUEN ERLAZIOA (gehienez 16 puntu)

1.1 ERAKUNDE ESKATZAILEAK KONTZILIAZIOAREN ARLOAN EGINDAKO IBILBIDEAREN LABURPENA. ESPERIENTZIA ETA IBILBIDEA (GEHIENEZ 4 PUNTU).

Ibilbidea berdintasunean. (2 puntu)

- Berdintasun-plan bat duten erakundeei 2 puntu emango zaizkie (erantsi egin beharko dute).

Kontziliazioaren arloan egindako ibilbidea (gehienez 2 puntu):

- Nolabaiteko esperientzia du uztartze-lanean.
- Ez du kontziliazio-planik, baina kontziliazio- eta malgutasun-neurriak aplikatzen ditu, legeek ezarritakotik harago; esperientzia puntualak ditu kontziliazioan (2 puntu)
- Ez du ez esperientziarik ez aurretiko ibilbiderik kontziliazioan (puntu 1)
- Entitateak badauka kontziliazio-plana (0 puntu)

1.2 PROIEKTUAREKIKO JARRERA ETA MOTIBAZIOA (GEHIENEZ 4 PUNTU)

Proposamena Zuzendaritzatik abiatzea, aldeko jarrera izatea, kontziliazioan lehen urratsak izatea eta plantillari jakinarazi izana baloratuko da.

1.3 PROIEKTU HAU ABIAN JARTZEAREN ALDEKO APUSTUA EGITEKO ARRAZOIAK ETA ERAKUNDEAK EKIMEN HONEKIN LORTU NAHI DITUEN HELBURUAK (GEHIENEZ 4 PUNTU)

- Erantzunkidetasunarekin eta enpresarentzako eta langileentzako elkarrekiko onurarekin lotutako arrazoiak jaso dira (2 puntu)
- Helburuak zehatzak eta espezifikokoak dira erakundearentzat (2 puntu)

1.4 LAGUNTZAREN BARNE- ETA KANPO-ERAGINAREN AURREIKUSPENA (GEHIENEZ 4 PUNTU)

- Barruan aurreikusitako ondorio kuantitatiboak eta kualitatiboak. Adierazleen presentzia, pertsona kopuruaren eta sexuaren arabera (2 puntu)
- Kanpoan aurreikusitako ondorio kuantitatiboak eta kualitatiboak. Adierazleen presentzia, pertsona kopuruaren eta sexuaren arabera (2 puntu)

2. PROIEKTUA ERAKUNDE ESKATZAILEAREN EZAUGARRI ETA BEHARRETARA EGOKITZEA (gehienez 25 puntu)

2.1 PROIEKTUAREN EGOKITZE/DOITZE MAILA ERAKUNDEAREN EGOERARA ETA BEHARRETARA (gehienez 5 puntu)

Lan-proposamenak planteatzen duen proiektu-mota azaltzen du, proiektua diseinatzeko erakundearen berezko ezaugarrien aurretiazko azterketa batean oinarrituta (tamaina, sektorea, lanpostu-motak, Zuzendaritzaren jarrera, kontziliazioaren arloan egindako ibilbidea/esperientzia, erritmoak...).

2.2 ERAKUNDEAREN POLITIKETAN PROIEKTUA INTEGRATZEKO ETA PLANTILLARA HEDATZEKO FORMULAK (kontziliazioaren arloan erakundearen diagnostikoa eta Ekintza Plana lantzeko erabiliko direla aurreikusten diren lan- eta hedapen-dinamikak) (gehienez 5 puntu)

- Diagnostikoa eta plana enpresa-politikan nola txertatu proposatzen du (3 puntu)
- Kontziliazioa hobetzeko proiektuaren (diagnostikoa eta plana) hedapena ziurtatzeko ekimenak planteatzen ditu (2 puntu)

2.3 PROIEKTUAREN TALDE ERAGILEA: AURREIKUSITAKO OSAERA ETA FUNTZIOAK (gehienez 5 puntu)

Talde eragile bat planteatzea baloratuko da, honako hauek barne hartuko dituena: Zuzendaritza, Giza Baliabideen/Pertsonen Kudeaketan eskumena duen Saila, ordezkariak sindikala eta plantillaren ordezkariak bat.

Proiektuaren bi faseetan (diagnostikoa eta plana) esleituko zaizkion funtzioak eta lan-metodologia zehaztea baloratuko da.

2.4 PROIEKTUAREN DENBORA ERAKUNDEAREN BEHARRETARA DOITZEA (gehienez 5 puntu)

Proiektuak diagnostikoaren eta planaren lanketa egokitzen du, erakundearen produkzio-erritmoen eta bere atalen eta lanpostuen arabera.

Proiektuaren faseak jaso eta laburbilduko dituen kronograma bat sartzea baloratuko da, fase bakoitzean egitea aurreikusten diren saioak barne hartuko dituena. Proiektu osoa laburbildu behar du (talde eragilea sortu, informazioa bildu, diagnostikoa egin eta kontrastatu, eta kontziliazioaren arloan Ekintza Plana landu eta kontrastatu).

2.5 DOIKUNTZA EKONOMIKOA (gehienez 5 puntu)

Produktuaren azken aurrekontua ezartzeko egindako kalkulua azaltzen da (kontzeptuak, prezioa/saioa, ordainsari profesionalak...)

3 KONTZILIAZIOAREN DIAGNOSTIKOA PRESTATZEA (gehienez 25 puntu)

3.1 DIAGNOSTIKOAREKIN LORTU BEHARREKO HELBURUAK (5 puntu)

3.2 DIAGNOSTIKOAN AZTERTUKO DIREN EREMUAK/ALDERDIAK (5 puntu)

Diagnostikoak, gutxienez, aginduan jasotako 5 eremuak aztertu behar ditu.

3.3 ERAKUNDEAREN DIAGNOSTIKOA ESKAINTZEKO BEHARREZKOA DEN INFORMAZIOA LORTU ETA

KONTRASTATZEKO AURREIKUSITAKO METODOLOGIA. DATUAK BILTZEKO ERABILIKO DIREN LANTRESNA MOTAK (inkestak, elkarrizketak...) (5 puntu)**3.4 AURREIKUSITAKO PARTAIDETZA-PROZESUAK (5 puntu)**

Partaidetza-prozesuek plantilla osoari eta ordezkarietza sindikalari egindako kontsulta jasotzea baloratuko da.

- Langile guztiei eta sindikatuetakoko ordezkarietza galdetu zaie (5 puntu)
- Lanpostu/atal mota desberdinen ordezkarietza bati eta ordezkarietza sindikalari galdetu zaie (3 puntu)
- Ordezkarietza sindikalari bakarrik galdetu zaio (puntu 1)
- Ez da kontsultatu. Ez dago partaidetza-prozesurik (0 puntu)

Diagnostikoa egiteko lortu nahi den partaidetza-maila, kontsultatu nahi diren gaiak, erakunde eskatzailearen eragileek diagnostikoan parte hartzea erabakitzeke irizpideak, etab.

Partaidetza-prozesuek plantilla osoari eta ordezkarietza sindikalari egindako kontsulta jasotzea baloratuko da, baita hainbat gairi buruz eta une desberdinetan planteatutakoa, eta ekarpenak eta kontrasteak egiteko aukera ematen dutela ere.

3.5 DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK PLANTILLARI SOZIALIZATZEKO FORMULAK (5 puntu)

- Diagnostikoaren emaitzak erakundeke barne-eragileei ezagutzera emateko erabiliko diren tresnak azaltzea baloratuko da (gehienez 2 puntu)
- Emaitzak plantilla osoari jakinaraztea baloratuko da (gehienez 3 puntu)

4 KONTZILIAZIOAREN ARLOKO EKINTZA-PLANA PRESTATZEA (gehienez 25 puntu)**4.1 PLANA LANTZETIK LORTU BEHARREKO HELBURUAK (6 puntu)**

Plana landuz hainbat xedetarako lortu nahi diren helburu-motak berezita banakatzea baloratuko da:

- Erakundearentzako helburuak (2 puntu)
- Plantillarentzako helburuak (2 puntu)
- Beste helburu batzuk (sozialak, kulturalak...) (2 puntu)

4.2 PLANAREN JARDUN-EREMUEN ETA LERRO ESTRATEGIKOEN DEFINIZIOA (7 puntu)

- Azaldu zein metodologia erabiliko den Planaren jardun-eremuak/ardatzak ezartzeko eta zeintzuk izango diren bere ildo estrategikoak.

4.3 HELBURUAK ETA NEURRIAK ZEHAZTEKO, HAUTATZEKO ETA LEHENESTEKO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK ETA METODOLOGIA (8 puntu)

- Azaldu zein metodologia erabiliko den lehentasunak ezartzeko helburuei, neurriei eta egutegiari dagokienez (gehienez 4 puntu)
- Azaldu zein eragilek erabakiko duten lehenestea ezarri beharreko helburuak eta neurriak. Hausnarketa horretan plantilla barnean hartzea baloratuko da (gehienez 4 puntu)

4.4 PLANAREN EGUTEGI BAT EZARTZEA (4 puntu)

Azaldu Planaren iraupena erabakitzeke irizpideak.

5. KONTZILIAZIOAREN ARLOKO EKINTZA-PLANA EZARTZEA ETA JARRAIPENA EGITEA (gehienez 9 puntu)

5.1 PLANA ERAKUNDEA OSATZEN DUTEN ERAGILEEI JAKINARAZTEKO/SOZIALIZATZEKO METODOLOGIA. (5 puntu)

Bai barne-mailan (plantilla) bai kanpo-mailan (bezeroak, webgunea...) sozializatzea baloratuko da (5 puntu)

- Azaldu zer tresna, prozedura eta baliabide erabiliko diren Plana erakundearen barne-eragileei ezagutarazteko (gehienez 2 puntu)
- Azaldu prozesuaren zein unetan egingo den Planaren barne-sozializazioa erakundean (puntu 1)
- Azaldu nola sozializatuko den publikoki (bezeroak, webgunea) kontziliazioaren arloko Ekintza Plana (gehienez 2 puntu)

5.2. TRESNAK/EGITURAK PROPOSATZEA NEURRIEN BETEARAZPENAREN JARRAIPENA EGITEKO ETA PLANAREN HELBURUAK EBALUATU ETA BERRIKUSTEKO (4 puntu)

- Neurriak ezartzen laguntzeko tresnak sortzea planteatzen da.
- Planaren bilakaeraren jarraipena egiteko adierazleak ezartzeko beharra planteatzen da, eta adierazle zehatz batzuk iradokitzen dira.

- Ekintza-plana berrikusteko eta eguneratzeko formulak proposatzen dira.
- Proiektuak jarraipena egiteko egitura/talde egonkorak sortzea aurreikusten du.